

# BAYONETA

Tolosaco Napoleonen aurcaco aldizcaria, ó Periódico antinapoleónico de Tolosa

Tolosan inprimatua bere legezco Udal eta Archiboaren babesean,  
Eusco Icascuntzaren pribilegioatequin,  
Zehazten mercatalecheac, Artem moldizteguian.



Impreso en Tolosa bajo la protección de su legítimo Ayuntamiento y Archivo,  
con privilegio de la Sociedad de Estudios Vascos,  
por la casa de comercio de Zehazten, en la imprenta de Artem.

## Tolosan, 1809co lotacillaren 22an. Donostiatic allegatutaco Londresco Estafeta.

Tolosarrac, eztira onac Londresetic eldu zaizquitan berriyac, baña ecer jarri ta quendu gabe contatuco dizquizuet, especheratu ez duten ta inoiz especheratuco ez duten Bayoneta onec oi duen leguez.

Agorrillaren 30ean, Holandaco costaco Walcheren ugaritean legorreratutaco ingueles tropac camporatu eguin bear izan cituzten. Lecu caltegarri ayetan ain ugaria den sucarrac soldadu ugari il ditu. Ara bidali zituztenec jaquin bear luquete Ingalaterraco indarrac berac bacarric eztirala ecertaraco gai. Staps iceneco gazte alemaniarrac urriaren 12an Vienan erabili zuen sastacai mendacaria bezain utsal eta etsitua izan cen Iparraldean Basati onen aurcaco meachu saiaquera au.

Onela Bonaparte I Tiranoac, patua aldeco duela, Wagramco garaipenaren ondoren, Austriaco emperadorea berari comeni zaion Itzarmena siñatzera beartu du urriaren 14an, il bereco 27an musica eta eleizaco campaequin ospatu bear izan guenduna. Diotenez berari esquer printzesa austriar bat ere escuratu omen du. Europa osoaz nagusitu da, beraz, Basatia, errialdeac cein oec eraso.

## Tolosaco Berriac. Bertan icusiyac

Azquenecoz bisitatu nizuetic ecer guchi aldatu da gure errian. Agorrillaren 25ean, aguintean dagoen alcateac, baina benetan Tiranoaren anaiaren ta bere cerbitzarien aguintuac bete besteric eguiten ez dituen uestezco alcateac beste fabore bat eguin die jaun auci, gure contura 2.669 erreal emanec, duela urtebete baino gueiagotic zampatzen gaituzten aguintuac bidegabe ta guizagabe oriec idazteco tinta, luma, engrudo ta beste zembait usqueria ordaintzeco. Precio orren barne Yturrichiquico atean, plaza onetaco comandante militarren chaperoc ezer falta eztezetan eraiqui duten echola dago.

Bost egun beranduago Francisco Bruno de Ayaldeburu jaunac gure dirutic ordaindu zion Juan Bautista de Arbildiri, "Cuadrilla de Naturales" delacoaren buruzaguiari, probintzia onetan Basatiaren anai ta bere mempecoac ain ederqui zerbitzatzeagatic.

Escolaco maisua den on Martin Jose de Lacombarentzat ordeac ez zen diruric izan. Agorrillaren 30eco bilcira ortan bertan vandalo aucc zerbitzatzen dituen alcateac echebicitza bilatzeco eguinbearrac bere contura eguin citzala erabaqui zuen, egun aietan jasan guenuen Tiranoaren soldaduen pasieran ordurarte bere echea izan cenetic bidali eguin baituzten. Ta nic zera galdetzen dizuet, aucc al dira elizguizon fanatico batzuen menpeco Illumpetatic gure Espiritua ateraco zutenac? Basatiaren anaiac eta Aldaz jauna bezalaco bere zerbitzariac, beren guezurrezco onberatasunaz jabetzeco contu orietaz jarduten zaizquizuenean, oroitu norc bidaltzen dituen echetic erretiratutaco maisu ondraduac ta nor baliatzen den apaicetaz -fanaticoc izan edo ez- pulpitudic beren aldarricapenac iracurtzeco.

Guertacari bilau auen ondorengo egunac eztira obeac izan. Urriaren 4an on Francisco Brunoc diru gueiago eman cien Tiranoaren soldaduec inongo nequeric jasan ez dezaten. Guipuzcoan, berac esan bezala, Tolosan daucate bicitoqui nagusia, besteac beste gure osatuan bertan. Soldadu loriatsu auen loa ezerc neca ez dezan teillatu osoa aldatu baitzaio gure contura.

Etengabe zampatzen gaituzten Tiranoaren soldadu auci jaten emateco gastu andiei aurre eguiteric ecin izan zuten. Eta executatuac izan ez zitezen, Thouvenot generalari barcacio erreguica igaro zuten azaro osoa gurinezco gure aguintari aucc. Il orren 22an bidali zioten gutuna bereziqui samurra zen, baina, dirudienec eraguin guchicoa. Orain on Joaquin Jusueren cargura dagoen escolan cristalac jartzeco diruric ezta apenas gueratu. Ichura denec casaca urdindun uestezco gure onguille auci guchi axola zaie gure Jaquinduriaren Templu xumeco leioetan paper utsa erabili bear izatea.

Amaitzera dijoan lotacill onetan, Basatiaren tropelac eraguindaco zorrac loditu besteric ez dira eguin. Illac nian 52.456 errealterdi bazca ta 42.957 erreal egunetoco ogui zor ciren. Ez izan beldurric ordeac, ciurrenic Thouvenot Anaiac gure aguintariac barcatuco die ta erru au. Hercules berri aucc Tiranoaren soldaduec ostatuan artzeco cuartelac eta iculluac ain garbi mantentzen dituzte ta.

Gaurcoz ez da berri oberic. Alere 1809ean obeac ecar al izatea espero det.

## En Tolosa, a 22 de diciembre de 1809. Estafeta de Londres, por vía de San Sebastián.

No son buenas las noticias que me llegan desde Londres, tolosarras, pero os las cuento sin quitar ni añadir nada, como es ya costumbre de esta Bayoneta que no han logrado encerrar ni encerrarán jamás.

El 30 de septiembre las tropas de la Inglaterra desembarcadas en la isla de Walcheren, en la costa de la Holanda, tuvieron que ser evacuadas. La fiebre, tan abundante en esos parajes insalubres, ha diezclado a esos soldados. Los que allí los enviaron deberían haber sabido que, por sí solas, las fuerzas de la Inglaterra nada pueden. Tan inútil y desesperado era ese intento de amenazar al Ogro desde el Norte, como el puñal vengador que el 12 de octubre levantó en Viena contra él un joven alemán llamado Staps.

Así el Tirano Bonaparte I, ayudado por la Fatalidad que le es tan favorable, ha podido obligar el 14 de octubre al emperador de Austria a firmar, tras la victoria de Wagram, el Tratado que a él más le convenía y que tuvimos que celebrar con música y volteando las campanas de nuestra iglesia el 27 de ese mismo mes. Se dice que por él ha conseguido hasta una princesa austriaca. Campa, pues, el Ogro a sus anchas por la Europa toda, asaltando alcobas y países por igual.

## Noticias de Tolosa. Observadas del natural

Desde la última vez que os visité, nada han cambiado las cosas en nuestra villa. Justo el día 25 de septiembre el supuesto alcalde que nos gobierna pero que, en realidad, se limita a cumplir las órdenes del hermano del Tirano y sus sirvientes, les hizo un nuevo favor a nuestra costa pagando a estos señores 2.669 reales en concepto de tinta, plumas, obleas y otras bagatelas para que puedan escribir más de esas órdenes injustas y bárbaras con las que nos oprimen desde hace ya más de un año. En ese precio también se incluyó la construcción de una barraca en la puerta de Yturrichiqui, para que los sayones del señor comandante de la plaza no padezcan estrechez alguna en el ejercicio de sus brutalidades.

Cinco días después, el señor Francisco Bruno de Ayaldeburu, también se ocupó en pagar de nuestro dinero a Juan Bautista de Arbildi, jefe de la llamada "Cuadrilla de naturales", por lo bien y dedicadamente que sirve al hermano del Ogro y a sus criados en esta provincia.

Para quien no hubo dinero fue para el maestro de Primeras Letras don Martín José de Lacomba. En esa misma sesión de 30 de septiembre el alcalde que sirve a estos vándalos, decidió que este ciudadano

ejemplar debería arreglarse por su cuenta en el negocio de buscar un techo bajo el que cobijarse después de que la soldadesca del Tirano, cuyo paso padecimos en esos días, lo expulsase de la que hasta entonces había sido su casa. Y yo os pregunto, ¿son éstos los que nos iban a sacar de la Oscuridad y las Tinieblas del Espíritu en las que, se supone, vivíamos sometidos a manos de un clero fanático? Cuando el hermano del Ogro y sirvientes suyos como el señor Aldáz os hablen de esa faramalla para persuadiros de su inexistente bondad, recordad quién expulsa a honrados maestros jubilados de su casa y quién es el que usa a curas -fanáticos o no-, para leer sus proclamas desde el púlpito.

Los días que han seguido a esos hechos infames no han sido mejores. El 4 de octubre don Francisco Bruno siguió regalando nuestro dinero para que no sufrieran ninguna incomodidad los soldados del Tirano que, como él mismo dijo, tienen en Tolosa su principal mansión en la provincia de Guipúzcoa. En nuestra propia posada para más señas. A la que, también a nuestra costa, se le cambió todo el tejado para que nada perturbase el sueño de tan gloriosos soldados.

El mes de noviembre lo pasaron entero nuestros gobernantes de pasta de mazapán pidiendo clemencia al general Thouvenot. Todo para que no se les ejecutase por no poder hacer frente a los crecidos gastos hechos a fin de alimentar a los soldados del Ogro que nos aplastan con su presencia. La carta que le remitieron el día 22 de ese mes fue especialmente tierna, pero, al parecer, de poco resultado. Apenas si ha quedado dinero para poner cristales en nuestra escuela de Primeras Letras, al cargo ahora de don Joaquín Jusue, que se tuvo que conformar con papel para tapar las ventanas de nuestro pequeño Templo del Saber, cuya existencia tan poco parece importar a nuestros pretendidos benefactores de casaca azul.

En este mes de diciembre que ahora acaba, las deudas que las hordas del Ogro nos están causando no hicieron sino crecer. A día 11 se debían 52.456 reales y medio de forraje y 42.957 de pan de munición. Pero no temáis, seguramente el Hermano Thouvenot perdonará a nuestros gobernantes tamaña falta teniendo en cuenta lo limpios que esos nuevos Hércules mantienen los cuarteles y hasta las cuerdas en las que alojamos a los soldados del Tirano. Nada menos que 2.920 reales pagaron el día 17 por tal trabajo.

No hay mejores noticias por hoy. Pero confío en poder traéros las en el año 1810.

